

**2012KO ABENDUAREN 20AN GOBERNU BATZARRAK EGINDAKO
OHIKO BILERAREN AKTA**

LEKUA: Beasaingo Udaletxea.

ARETOA: Batzar Aretoa.

EGUNA: Hogeia.

HILABETEA: Abendua.

URTEA: Bi mila eta hamabia.

HASIERAKO ORDUA: arratsaldeko zazpiak laurden gutxiagotan.

BATZARRALDIAREN IZAERA: Ohikoa

DEIALDIA: Lehena

OSATZEN DUTEN PARTAIDEEN KOPURUA: Sei (6)

MAHAIBURUA: Koldo Agirre Mujika

BILDUAK: M^a Mar Celaya González

Alfonso Segade González

Josi Insausti Mujika

ETORRI GABEA: Aitor Aldasoro Iturbe

OHARRA: falta den zinegotziak oraindik ez du zinegotzi karguaren jabetza hartu.

IDAZKARIA: Itziar Arostegi Apaolaza

1.- AURREKO AKTA. 2012ko urriaren 11ko aktaren berri eman ondoren, aho batez onartu da berarekiko zeresanik ez dagoelako.

2.- KONTRATUA LUZATZEA. Foru Kontratazioen Zentralaren bidez Argindar elektrikoa hornitzeko kontratuaren luzapena.

Ondorengoa ezagutzera eman da:

2012ko urtarrilaren 20ko datarekin, Beasaingo Udalak bere Alkatearen bidez eta Foru Kontratazioen Zentralaren bidez Argindar elektrikoa hornitzeko esparru akordioaren babesean, IBERDROLA GENERACIÓN, S.A.rekin kontratua sinatu zuen, udalaren beharretarako energia elektrikoaren horniketa izan ahal izateko. Kontratua 2012ko urtarrilaren 20ko datarekin sinatu bazen ere, 2011ko azaroaren 1eko dataren atzera eraginarekin sinatu zen eta urtebeterako, baina gehienera ere hiru luzapen egiteko aukerarekin, bakoitza urtebetekoa izanik.

Kontratuaren lehen urte bete ondoren, Foru Aldundiak 2012ko urriaren 26ko datarekin, argindarraren hornidurako esparru akordioa luzatu egin du beste urte baterako, prezioak eguneratuz baldintza pleguan ezartzen diren arabera. Beste baldintzak mantendu egiten dira.

Zerbitzu, Landa Ingurune eta Ingurumena Batzordeak 2012ko azaroaren 27an egindako batzordeak proposatu zuen, beste urte baterako IBERDROLArekin dugun argi indar hornidurari buruzko kontratua luzatzea, prezioak hauek izanik:

ENERGIAREN PREZIO BERRIAK (€/KWH)

TARIFA	PE1	PE2	PE3	PE4	PE5	PE6
2.1A	0,152945					
2.1 DHA	0,180470	0,083464				
3.0 A	0,181500	0,136753	0,077571			
3.1 A	0,139561	0,122681	0,083885			
6.1	0,179613	0,141984	0,113293	0,091539	0,083178	0,068904

Hitz egiteko txanda eman ondoren bildutakoek proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.

Horren ondorioz, proposamena aho batez onartu da.

3.- ESKAERA ETA GALDERAK

Eskaera eta galderen atalean ez da inolakorik aurkeztu.

Eta tratatzeko beste gairik ezean, bilera arratsaldeko zazpiak bost gutxiagotan amaitu da eta nik, idazkari naizen honek, akta hau idatzi eta sinatu dut.